

## Gazteriaren Foru Erakundeak, UNEDekin batera, osasun mentalaren arloko ikastaro batzuk antolatu ditu

*Begiraleei eta Gazteriako teknikariei zuzendua, lau saio izango dira urtarrilaren 26tik martxoaren 2ra bitartean*

*Kultura Etxean bertan egin ahal izango da, ezarritako egunetan, edo linean, beste data batzuetan, baina ezinbestekoa izango da izena ematea*

**Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a.** Gazteriaren Foru Erakundeak, UNEDekin batera, osasun mentalaren arloko ikastaro batzuk antolatu ditu, begiraleentzat eta Gazteriako teknikarientzat.

Ana del Val Gazteriaren Foru Erakundeko presidente eta foru diputatuaren ustez, “aurrekontuen inguruko aurreko eztabaidan iragarri nuen programa bat lantzen ari ginela UNEDekin, teknikari eta begiraleei osasun mentalari eta horrek adingabeengan izan ditzakeen ondorioei buruzko prestakuntza emateko urtero egiten dugun ekarpenaren emaitza gisa”.

“Gai horri heltzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu, kezkatuta baikaude eta esku artean dugulako, eta are gehiago azken urteotan gertatu den guztiarekin, gure profesionalek, adingabeekin harremana dutenez, gutxieneko tresna batzuk eskura ditzaten, batez ere arazoak identifikatzeko. Gai hori, aldi berean, oso gai delikatua da, eta, horregatik, Psikologiako unibertsitateko adituengan konfiantza izan dugu”, adierazi duenez.

Gutzira, 4 saio izango dira gaztelaniaz, eta bakoitzak 2 ordu eta erdiko iraupena izango du. Prestakuntza horrek titulua ekarriko du, baldin eta bertaratuak saio guztietara joan badira.

Bi modalitate daude, bertsio bateratua eta aurrez aurrekoa, Ignacio Aldecoa Kultura Etxean, 8:30etik 11:00etara, egun hauetan:

- 2023ko urtarrilaren 26a (I. Substantziadun eta substantziarik gabeko adikzioen prebentzioa nerabeengan).
- 2023ko otsailaren 2a (II. Nerabe eta gazteen suizidioa eta suizidio portaera).
- 2023ko otsailaren 16a (III. Interakzio osasuntsurako komunikazio trebetasunak).
- 2023ko martxoaren 2a (IV. Emozioen autohezkuntza).

Gainera, linean egin ahal izango da, Gazteriaren Foru Erakundearekin adostutako beste data batzuetan. Bi kasuetan, ezinbestekoa izango da izena ematea.

Prestakuntza horretara gonbidatu ditugu berarekin lan egiten duten elkarte eta enpresak, baina lanbide kontuak direla-eta jaso nahi duen edonork idatz dezake Gazteriaren Foru Erakundearen posta korporatibora ([ifj@araba.eus](mailto:ifj@araba.eus)), izena emateko informazioa jasotzeko bertan.

“Gazteriaren Foru Erakundearen jardueretan –adierazi du Del Valek–, gazteak kezkatzen eta esku artean dituzten arazoak jorratzen dira, batez ere aire zabaleko jardueretan, ingurune naturalean edo espazio irekietan egiten baitira, aisialdiko hezkuntzaren kontzeptuaren barruan. Kontzeptu hori pertsonak beren askatasun denbora modu positiboan erabiltzen jakin dezaten prestatu behar duena da, gazteak elkarrekin egon daitezen eta naturan bizipenak bizi ditzaten, haienzako une bereziak partekatuz. Aisialdia gizakiaren eta kulturaren berezko berreskurapenerako espazio bat da, jolasaren, ikuskizunaren eta abarren bidez”.

“Beraz -ekin dio-, aisialdiko hezkuntza prozesu integral bat da, pertsonaren heltze prozesua aisialdian areagotzeko bide ematen duena. Horrek bere buruarekin berriro bat egiten eta bizi den ingurumenean sakonago errotzen laguntzen dio eta elkarbizitzaren ondorioz sortzen diren balioak indartzen edo aurkitzen, hala nola berdintasuna, elkartasuna, tolerantzia, sormena, etab.”.

“Hau da, beren funts hutsagatik, programa guztiak eta Erakundeak berak, beren idiosinkrasiagatik, gure neska-mutilen bizitza hobetzen laguntzen dute, errutinatik ateratze hutsagatik eta aisialdian hezkuntzaren filosofia modu profesionalean aplikatzeagatik. Baina horrek ez du eragozten gai pertsonalak, barnekoak egotea, azalarazten zailak edo sakonagoak direnak, eta gure profesionalek inoiz baino prestatuago egon behar dute horretarako. Hori da prestakuntza hori antolatu izanaren arrazoia”, esan du bukatzeko.